



21.500 haur eta gaztek baino gehiagok parte hartzen dute Gazteen Gurutze Gorriaren jardueretan

- Ia 400 gaztek parte hartzen dute Gazteen Gurutze Gorriko boluntariotzan.

Gazteriaren Nazioarteko Egunaren ospakizunean (abuztuaren 12a), **Gazteen Gurutze Gorriak 2017an egindako jardueraren balantzea egiten du, haur eta gazteekiko duen konpromisoa berretsiz, Euskadin gazte-atalaren boluntariotzan parte hartzen duten 398 gazteren lan solidario eta eskuzabalaren bitartez.**

Gazteen Gurutze Gorriak 2017. urtean gizarteratze- eta heziketa-lan handia egin du, eta Euskal Autonomia Erkidegoan bere programa eta proiektu sozioedukatiboen bitartez 21.581 haur, nerabe eta gazteri lagundu ahal izan die.

Parte-hartzaile gehien izan dituen programa **Sentsibilizazio eta Prebentzio Programa** izan da (**10.775 parte-hartzaile**); programa horrek **Ingurumen Hezkuntza, Osasun Hezkuntza, Genero Ikuspegia, Indarkeriazko Jokabideen Prebentzioa eta Garapenerako Hezkuntzaren** alorrean jarrera-aldaketak sortu nahi dituzten proiektu guztiak biltzen ditu.

Bigarren tokian, **Gizarteko Esku-hartzearen eta Gizarteratzearen Programak 5.167 parte-hartzaile izan zituen 2017an**, bertan haur eta gazteen gizarteratzea lortu nahi duten ekimen guztiak bilduz, eta hainbat proiektu lurralde osoan garatuz, adibidez **Eskola Arrakastaren Sustapena** eta **Ospitaleratutako Haurrak** izeneko proiektuekin. Bestalde, **Parte-hartzearen Programak 452 parte-hartzaile izan ditu 2017an, haur eta gazteen parte-hartzerako proiektuekin, eta aisia eta astialdirako jarduerekin.**

Azken urtean, **Gazteen Gurutze Gorriaren Sentsibilizazio eta Prebentziorako ekintzak areagotu egin dira**, adibidez honako hauekin: **“Hezkuntza-jostailua”** proiektua, edo **eskola-jazarpenaren prebentziorako kanpainak, Euskadi osoan 3.109 gaztek parte hartuz, baita Gizarteko Esku-hartzerako eta Gizarteratzeko jarduerak, edota Eskola Arrakastaren Sustapena proiektua eta haur eta nerabeentzako aisia eta astialdirako jarduerak, hiri-udalekuak eta udako beste hainbat jarduera.**

Gazteen Gurutze Gorriaren programak eta proiektuak gazte-ataleko boluntarioek diseinatzeko dituzte, haur, nerabe eta gazteen beharrezko modu integratuean erantzuteko, haur, nerabe eta gazte horiek euren garapeneraren protagonista gisa parte hartuz.

Gazteen Gurutze Gorria Gurutze Gorriaren gazte-atala da, eta bere jardueretan 6 eta 30 urte bitarteko haur eta gazteen parte-hartzea sustatzen du balioetan oinarritutako hezkuntzaren bitartez, errealitatea modu aktibo eta solidarioan eraldatzeko helburuarekin.

Gazteen Gurutze Gorriak gizarte-prebentzio eta -sentsibilizazioko proiektuak eta kanpainak garatzen ditu hainbat gairi lotuta, adibidez: **bizi-ohitura osasungarrien sustapena, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, nazioarteko lankidetzak, ingurumen-jasangarritasuna, edo kolektibo ahulen gizarteratzea, hori guztia Gurutze Gorriaren printzipio eta balio humanitarioak oinarritzat hartuz.**

Bere jarduera eta proiektuei buruzko informazio gehiago eskura dago bere webgunean (www.cruzrojajuventud.org), Twitterren ([@CRE Juventud](https://twitter.com/CRE_Juventud)) eta Facebooken (<https://www.facebook.com/cruzrojajuventud.es>).

Gurutze Gorrian boluntariotza egin nahi baduzu, ez izan zalantzarik eta... #Lánzate: www.hazvoluntariado.es

IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK

Gurutze Gorriko Telebistaren bideoa: www.cruzroja.tv/video/10244

Álvaro García Serrano
Komunikazio Arduraduna

Arabako Gurutze Gorria
Tlfn. 945 22 22 22 luzapena 8 | 678 40 14 43 | comunicacionalava@cruzroja.es